



# 2023 memoria

Etorkizunera begira, erresilientzia.

URAREN EUSKAL AGENTZIA





ura

URAREN  
EUSKAL  
AGENTZIA

AGENCIA  
VASCA  
DEL AGUA

ELKARLANEKO  
GOBERNANTZA,  
ZUGANDIK GERTU  
EGOTEKO



Herritar agurgarria:

Zuregana jotzen dut Eusko Jaurlaritzaren URA-Uraren Euskal Agentziaren gobernu-ekintzaren berri emateko eta, horrela, uren arloan garatzen ditugun jardueren berri izateko.

Euskadiko Ingurune urtarra kudeatzean aintzakotzat dugu oso ura bizitza dela, ura garela. Zentzu horretan, ura zaintza dagokigula, gizartean eta planetan bizitza garatzeko oinarrizko ondasun bat babesten jarraitu behar dugula.

Jakin behar dugu uren egoera onak, ur-erabilerak eta ur-eskuragarritasunak pertsona guztien ekarpenekin baino ez dela lortzen.

Funtsezkoa da herritarrei eta jarduera ekonomiko eta produktiboei edateko uraren hornidura bermatzen jarraitzea; nahiz, horrez gain, lankidetzaz hauspotzea ura bere ingurune naturalera gero eta hobeto itzularazteko, berrerabiltzea erraztuko duten baldintzetan. Hartara, sistema hidrikoaren egoera ekologikoa baldintza natural onenetan egon dadin.

Pertsonen segurtasuna ere handitu behar dugu, besteak beste, ur-gordien, uholdeen edo lehorteen errepikapen naturaletatik babesteko.

Lekuko zuzenak izaten ari gara nola jatorri antropikoko klima-aldaketak herritarrentzako eta jarduera ekonomikoentzako arrisku-egoeren gorakadan dakarren, hain zuzen ere.

Horregatik, Uraren Euskal Agentziak xede du ibaien eta sistema hidriko osoak zentzuzko elkarreragina izatea hirigintzarekin, gure herri eta hirien hiri-garapen jasangarriarekin.

Alegia, beharrezko dugu hirigintzaren eta ingurune hidrikoaren arteko elkarrekintza atsegina, elkarlanekoa eta koordinatua: administrazioen arteko eta administrazio horien eta herritarren arteko elkarlaneko gobernantzan oinarritua, zerbitzu publikoa etengabe hobetzeko helburuarekin.

Eskerrik asko gure lanean duzun konfiantzagatik. Jaso ezazu agur bero bat.

Antonio Aiz

## 2023 memoria

# ETORKIZU- NERA BEGI- RA, ERRESI- LIENTZIA.

Gure baliabiderik handienaren babesa, URAREN funtsa	5
Erresilientzia-plangintza	8
Elkarlaneko gobernantza: URAREN DNA	17
Dibulgazioa eta sentzibilizazioa. Zugandik gertu	20
2023ko jarduera nagusiak, 2024ko plangintza	25
Aurrekontuak/ Emaidza ekonomikoak	31
Berriak	68



2023 MEMORIA

01

**Gure  
baliabiderik  
handienaren  
babesa,  
URAre  
funtsa**



Uraren Euskal Agentzia Eusko Jaurlaritzaren zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, eta EAEn uraren politika gauzatzeko ardura du.

URA Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari atxikita dago.

URAk askotariko funtzioak betetzen ditu: 3 ardatz nagusitan bateratu litezke:

### Eje 1 HORNIDURA BERMATU

### Eje 2 SANEAMENDUA

### Eje 3 UHOLDEETATIK BABESTU

2023an, URAk 5.564.212,74 euro inbertitu ditu jabari publiko hidraulikoa lehengoratzeko eta kontserbatzeko, ekosistemak hobetzeko eta sekzio hidraulikoa mantentzeko lanetan eta jarduketetan.

Estatu mailako informazio-betebeharrei ere erantzun zaie.

Baita Europa mailan ere: OSPAR, WISE SoEedota NABIA.

**WISE** FRESHWATER  
INFORMATION  
SYSTEM FOR  
FRESHWATER EUROPE

Bada oraindik zer ezagutu....  
Zatoz geu ezagutzera

Gure baliabiderik handienaren babesa, URAREN funtsa

## Lankidetzaren nabarmenak etangabeko bidelagun

- 2023an URAREN parte hartzen jarraitu du.
- INDESMOF proiektuan: MSCA-RISE "Research and Innovation Staff Exchange" ekintzaren bidez. Ekintza horrek unibertsitate, zentro teknologiko, enpresa eta erakunde publikoen arteko ezagutza- eta langile-trukea sustatzen du.
- Proiektu honen helburu nagusia diziplinarteko eta sektorearteko ezagutza truketzea da, iturri urtsuetatik metal astunak ezabatzeko konposatzaile adsorbatzaile berriak diseinatu, sintetisatu eta karakterizatzeko; eta horietatik abiatuta gaitasun handiko eta espezifikotasun handiko iragazkiak garatzea gizartearentzat eta industriarentzat.



## Etengabe, aurrerantz, jakina: URA 4.0 / DIGITALIZAZIOA URA

- Aholkularitza-prozesua egin da **URAREN digitalizazio-estrategia** zehazteko 2023-2027 aldirako. Estrategia horren bidez, epe labur eta ertainerako digitalizazioaren arloko ibilbide-orria zehaztu nahi da.
- **Isurketen eta aprobetxamenduen datuak denbora errealean lortzea** ahalbidetzen duen tresna informatikoa ezarri da. Xedea: datuen titularrek informazioa denbora errealean gehitzeari jarraipena ematea.
- Era berean, **uraren kalitateari buruzko datuak argitaratzen dituen UBEGI plataformaren** berrikuntza teknologikoa onartu da.





2023 MEMORIA

02

**Erresilientzia-  
plangintza**



Erresilientzia- plangintza

# Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa


2022-2027 aldiari dagokion Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologiko berria 2023ko otsailean argitaratu zen aldizkari ofizialean, Administrazio Orokorrean igorpen-eta onarpen-prozesua egin ondoren.

Plan honen **helburua uren egoera ona lortu eta mantentzea da**, Europar Batasunak 2000/60/ EE Uraren Esparru Zuzentarauan ezarritako irizpide eta helburuen arabera.

Tresna horren bidez, uraren segurtasun handiagoa lortu ahal izango da, bai eta horniduraren bermea handitu ere, uraren iraunkortasunaren eta erabilera eraginkorraren irizpideetan oinarrituta.

Oro har, erresilientzia hobetuko du muturreko fenomenoaren aurrean (uholdeak eta lehortek).

Era berean, amaitu zen 2022-2027 zikloko Plan Hidrologikoaren urteko lehen jarraipen-txostena, aurreko ekitaldiko jarduerari dagokiona.





Erresilientzia-plangintza

## Uholdeen prebentzioa

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana

2023an, 2022-2027 zikloari dagokion **Uholde- arriskua Kudeatzeko Plana** (UAKP) onartu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arro guztien eremua barne hartzen duena.

Erkidego arteko eremuetarako, **Ebroko eta Kantauri Mendebaldeko Demarkazio Hidrografiko**etako UAKPak ere onartu ziren, eta URAk maila teknikoan parte hartu zuen horiek egiten.

Uholde Arriskua Kudeatzeko Plan hau funtsezko tresna da 2007/60/EE Zuzentaraua ezartzeko. Zuzentarau horrek Europar Batasuneko estatu kideen uholde arriskua ebaluatzeko eta kudeatzeko estrategia komuna zehazten du.

Ingurumen-helburuen eta uholdeen aurkako prebentzio- eta babes-helburuen arteko

bateragarritasun egokia bermatzeko, UAKP Plan Hidrologikoarekin hertsiki koordinatuta dago, prestatze-fasean, izapidetzean, ingurumen-ebaluazioan, zein onarpenean.

Era berean, uholde-arriskuari buruzko kartografia eta batimetria handitzeko lanekin jarraitu da. Lan horiek, batetik, informaziorik gabeko eremuetan egin ziren, eta, bestetik, uholdeetatik babesteko egin berri diren obrak egin diren eremuetan.

Era berean, uholde-arriskuari buruzko azterlan berri horiek egiteko laguntza-kontratu berri bat abiarazi zen 2023an.

Azkenik, azpimarratu behar da 2023an Iragarpen eta Alerta Hidrologikoen Sistemaren (UHATE) mantentze-lanekin eta sistemarekin jarraitu dela.

## Prebentzioa, bai. Baita garrantzi bereziko gertakarien aurrean erreakzionatzeko gaitasuna ere.

2023an, hainbat uholde gertatu ziren, eta URAk horien jarraipen berezia egin behar izan zuen.

Gertakari horietako garrantzitsuenak 2023ko urtarrilaren erdialdean gertatu zen. Hilaren 16an eta 17an izandako **prezipitazio handiek** eragin zuten, bereziki kantauriar isurialdean.

Uholde horiek uholde puntualak eragin zituzten hainbat tokitan, bereziki Bizkaian (Mungia, Getxo eta Sondika).

URAk lagundu egin zuen hazkunde horien ondorioak ahalik eta gehien murrizteko.

2023an beste uholde bakan batzuk ere erregistratu ziren, hala nola maiatza eta uztaila bitartean Mañuetan, Bergüendan, Fontechan, Caicedon edo Guardian gertatutakoak.





Erresilientzia-plangintza

## Erresilientzia-plangintza

Uholdeetatik babesteko proiektuak idazteko laguntza

2023an, URAren Obra Arloak **uholdeen aurkako zenbait defentsaproiektu idatzi** ditu, UAKPren Neurrien Programa garatzeko.

Lan horietan URAko hainbat sailek parte hartu dute, diziplinarteko lankidetzaren adibide handi batean.

Hala, Uholdeak Prebenitzeko Arloak laguntza teknikoa aurkeztu dio Obren Arloari, proiektu berrien justifikazio hidraulikoak gainbegiratu eta baliozkotzeko.



LURRALDEAREN  
ETA UR  
EKOSISTEMEN  
ARTEKO OREKA ETA  
ELKARRERKINTZA  
ATSEGINA  
SORTZEN DITU GU

Erresilientzia-plangintza

## Ur-masen egoeraren jarraipena


2023an Euskal Autonomia Erkidegoko **uren egoeraren jarraipena egiteko programekin** jarraitu da, URAREN jardun orokorrean duen garrantziaren seinale.

Era berean, jarraipen espezifikoak egin dira kontrol are zehatzagoa egokitzat jo den eremuetan.

Puntu honetan, garrantzitsua da nabarmentzea substantzietan eragindako kutsaduraren ebaluazio bat sartu dela

Uraren Esparru Zuzentarauaren behaketa-zerrendan, ibaietan, trantsizioko uretan eta kostaldeko uretan.

Programa horien emaitzak URAREN webgunean argitaratu dira, UBEGI sistema barne, eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Estatistika Organora bidali dira.



## Lehorte-plana

- Muturreko fenomenoaren aurreko erresilientzia hobetzeari dagokionez, **Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Arroetako Lehortearen Plan Berezia** ere nabarmendu behar da, aurreko ekitaldian onartua eta 2023an garatu duguna.
- Plan hori Plan Hidrologikoarekin koordinatuta egin da, eta Eusko Jaurlaritzak onartutako mota horretako lehen plana da.
- Onartu ondoren, lehortearen plan honen egoeraren eta aplikazioaren jarraipenari buruzko hileroko txostenak egiten eta argitaratzen ari gara.



## Herritarrekin harremanak areagotzea

- 2023an zehar, **obrak baimentzeko 1518 espediente** hasi dira (urbanizazioak, eraikuntzak, landaketak, mozketak, etab.), eta horrek esan nahi du berriz ere bolumen handia lortu dela.
- Era berean, urte berean **1.607 espediente** ebatzi dira, eta horrek gehikuntza nabarmena ekarri du 2022. urtearekin alderatuta.
- Bestalde, **Partikularren, administrazioen edo enpresen 575** kontsulta izan dira, eta nabarmentzekoa da 531 kontsultari erantzutea lortu dela aldi berean. Horrek esan nahi du aurreko ekitaldiko datuak baino zertxobait gehiago izan direla, bi kasuetan.

**Beraz, pertsona eta enpresekiko elkarreragina sendotu egin da.**

Era berean, **64 hirigintza-txosten** hasi dira, beste administrazio batzuen izapideen barruan edo udalek, aldundiek edo sustatzaileek egindako eskaerei erantzunez: 68 txosten egin dira.

Azkenik, **partikularren 124 salaketa** jaso dira guztira, baimenen, arau-hausteen eta abarren baldintzak ez betetzeagatik.








2023 MEMORIA

# 03

**Elkarlaneko  
governantza:  
URAREN DNA**



Elkarlaneko gobernantza: URAREN DNA

## Gure jarduna, lankidetzan.

2023aren amaieran, **134 udalek sinatu zuten Uraren Euskal Agentziaren eta tokiko korporazioen arteko lankidetzaprokoloa**, beren ur-masak lehengoratzeko jarduketetarako.

Era berean, AZTI-Tecnaliarekin sinatutako lankidetzahitzarmenaren lanak egin dira, "Euskal Autonomia Erkidegoko trantsizioko eta kostaldeko uren jarraipen-programak gauzatzeko eta 2021-2023 kanpainetarako horien egoera zehazteko".

**U R B A N**  
**K L I M A**  
**2 0 5 0**

Oso ekintza azpimarragarria da; izan ere, hitzarmen honen esparruan, uren egoeraren ebaluazioan erabiltzeko aurrerapen metodologikoei buruzko lanak egin dira:

- Trantsizioko eta kostaldeko urretan, makroornogabeen jarraipena eta ebaluazioa egiteko metodo genomikoak.
- Lagintzaile pasiboak aplikatzea Bidasoako estuarioan TBT kutsadura ebaluatzeko.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko trantsizioko eta kostaldeko ur-masen egoera hidromorfologikoaren ebaluazioa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroetako bainatzeko uren profilak.

Era berean, URAk URBAN KLIMA 2050 programaren esparruan gidatzen dituen hiru ekintzak koordinatzen jarraitu da.



Era berean, hitzarmen berriak sinatu dira, eta aurretik sinatutako beste batzuei jarraipena eman zaie ere:

- **Gipuzkoako Ur Partzuergoarekin, Azti Fundazioarekin eta Ceit Zentro Teknologikoarekin** hitzarmena sinatu dugu Mijoako kontserba-industrien isurketek saneamenduko hiri-sarean duten eragina eta integrazio-aukerak aztertzeko; zein integrazio horrek Zabalako hondakin-uren araztegia eta Mutrikuko seanememendu-sisteman dituen ondorioak minimizatzeko.
- **Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatearen eta URaren arteko lankidetzaren hitzarmena**, Atalerrekako hondakin-uren araztegia hobetzeko obren aurreproiektua idazteko, eta proiektua egiteko lanen zuzendaritza egiteko.
- **Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin lankidetzaren aritzekoa**: jardueraplana egiteko, proiektuak idazteko eta zerbitzatu gabeko eremuen isurketak kolektorera konektatzeko beste neurri batzuk zehazteko. 2023an Busturialdea sartu da bertan.
- **URaren, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren eta Mungiako Udalaren arteko hitzarmena**, Monteberrriaga urbanizazioko bi araztegiara iristen diren hondakin-urak saneamendu-sare orokorrean sartzeko obren lizitazioa, esleipena, finantzaketa, gauzatzea eta zuzendaritza kudeatzeko.



2023 MEMORIA

# 04

**Dibulgazioa eta  
sentsibilizazioa.  
Zugandik gertu.**



Dibulgazioa eta sentsibilizazioa. Zugandik gertu.

## Informazioa eta garrantasuna.

Euskal Autonomia Erkidegoko barne- arroetako emari ekologikoen betetze-mailari buruzko urteko txostena egin da.

Uholdeak Prebenitzeko Arlotik, 2023an, **217 txosten** egin dira guztira: **uholde-arriskuaren ebaluazioa, azterlan hidraulikoen baliozkotzea edota UAKPren neurri-programarekiko bateragarritasunaren** ebaluazioa xede, besteak beste.

Gainera, uholde-arriskugarritasunari eta uholde-arriskuko eremuetako erabileren bateragarritasunari buruzko azterlanekin lotutako 85 kontsulta teknikori erantzun zaie.

Ebaluazio Arloak guztira 424 txosten egin ditu 2023ko ekitaldian:

- Ur-aprobetxamenduen emakidak/ inskripzioak: 98.
- Ingurumen-ebaluazioa: 144.
- Hirigintzakoak: 94.
- Lurzoruaren kalitatea, abeltzaintza-jarduerak eta Gernikako Perimetroa: 63.
- Beste txosten batzuk: 25.

Elkarlaneko gobernantza: URAREN DNA

## Etorkizun hurbilena marrazten:

Hurrengo ekitaldiari begira, **uren aprobetxamendurako eskaerak Plan Hidrologikoarekin bateragarriak diren jakiteko txostenak** egiteari eustea erabaki da.

Era berean, hirigintza-garapeneko proposamenekin lotutako azterketa-txostenak egiten jarraituko da, plangintza izapidetzeko faseetan. Halaber, txostenak egiten jarraituko da ingurumen-ebaluazioaren izapidetzearen esparruan.

Era berean, lurpeko uren kutsadura puntuala duten kokalekuei buruzko kontsultak aztertzeko eta horiei buruzko informazioa emateko akordioa nabarmendu nahi dugu, bai eta Gernikako Babes Perimetroarekin lotuta jasotzen diren tokiei buruzkoak ere.

Azkenik, Gernikako lurpeko ur-masak duen egoerari dagokionez (egoera kimiko txarra), 2024an Gernikako akuiferoa deskontaminatzeko hainbat biobitartekotza-jarduketa hastea onartu da, Maltako zonaldean.




Elkarlaneko gobernantza: URaren DNA

## Dibulgazioa eta sentsibilizazioa. Zugandik gertu

2023an, uraren arloan partaidetza publikoa eta ingurumen-prestakuntza eta -sentsibilizazioa sustatzeko jarduerak garatu dira, honako hauek barne:

- Prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak (dibulgazio-hitzaldiak eta ibai-gelak).
- Ingurumen-boluntariotzako ekintzak, udalekin eta gizarte-kolektiboekin lankidetzan (Hiri hondakin solidoak ibaietatik kentzea; ibaiertzeko landaredi-landaketak ikastetxeekin).
- Ingurune urtarrari buruzko ikus-entzunezko produkzio-lanak.





Eta, oro har, herritarrak prestatzeko eta sentsibilizatzeko ekintzekin eta ingurumen-boluntariotzarekin jarraitu da. Ingurune urtarraren kontserbazioarekin lotuta, ibaiertzeko landaredia landatzeko kanpainak barne. Udalekin eta ikastetxeekin lankidetzan, ibai eta erreketatik zaborrak kentzeko jardunaldiekin.

Era berean, mantendu egin dira ikus-entzunezko ekoizpen-lanak eta ur-inguruneari buruzko gaikako erakusketak.





2023 MEMORIA

# 05

2023ko jarduera  
nagusiak,  
2024ko  
plangintza

2023ko jarduera nagusiak, 2024ko plangintza

## Ikuskaritza- eta jarraipen- lanak

2023an 8.445 ikuskapen egin dira guztira, honela banakatuta:

# 2.894

Obrak izapidetzearekin lotutako ikuskapenak.

# 1.418

Isurketak izapidetzeko ikuskapenak.

# 1.864

Laginketa.

# 1.065

Aprobetxamenduekin lotutako ikuskapenak.

Era berean, **384 kontrol-jarduketa** egin dira obren arloko balizko arau-hausteeekin; isurketen arloko balizko arau-hausteeekin lotutako 70 jarduketa; eta aprobetxamenduaren arloko arau-hausteeekin lotutako 12 jarduketa.



2023ko jarduera nagusiak,  
2024ko plangintza

## Azterketa eta zaintza jarraitua

URAk Lasarten duen laborategian, 2023an, **1.013 lagin aztertu dira guztira**; horietatik 533 Ekialdeko Kantauriar Arroen eremukoak dira, eta 480 Mendebaldeko Kantauriar Arroen eremukoak.





### 2023an 2.349 lagin aztertu dira guztira

Besteak beste, **parametro hauek aztertu** dira: pH-a, SS, kolorea, eroankortasuna, OEK, solido sedimentagarriak, DBO5, nitrogeno amoniakala, nitritoak, nitratoak, sulfuroak, kloruroak, sulfatoak, metal totalerako laginen digestioa, metal astunak, olioak eta koipeak, zianuroak, fenolak, detergenteak, guztizko fosforoa, fluoruroak, hidrokarburoak, guztizkoak, alkalinitasuna, guztizko gogortasuna, kaltzio gogortasuna, uhertasuna.


Era berean, kanpoko laborategietan, URAk eskatuta, guztira **1.336 lagin** aztertu dira.

Hala, 2023an **2.349 lagin** aztertu dira guztira, eta horietatik 1.750 programatutako laginketei dagozkie.

Bestalde, **zebra-muskuiluak** Euskal Autonomia Erkidegoan duen presentziaren jarraipena egiteko lanak ere egin dira.

## Obrei dagokienez, Uraren Euskal Agentziak 2023an honako lan hauek burutu, jarraitu edo hasi dira, nagusiki:

- Lagrango saneamendua.
- Moredako saneamendua.
- Ajangiz eta Gernika arteko ponpaketa eta kolektore-tartea.
- Aginagako saneamendua.
- Ermuko hiriguneko saneamendu-kolektorea.
- Bilboko portuaren saneamendua, 1. fasea eta 2. fasea.
- Debabarreneko saneamendua. Arriaga-Apraitzeko HUAraiko tartea.
- Batan eta Zapardiel ibaien uholdeetatik babesteko lanak Gasteizen.
- Abadiñoko Trañapadura zubia ordezte.
- Laudioko San Juan errekaostaren ingurumen-lehengoratzea eta egokitzapen hidraulikoa.
- Ibaizabal ibaiaren uholdeetatik Galdakao babesteko lanak, 3. fasea: Bengoetxe-Plazakoetxe.
- Urumea ibaiaren uholdeetatik Akarregi-Ergobia babesteko lanak.
- Nerbioi ibaiaren uholdeetatik Laudioko hirigunea babesteko lanak.
- Gorostizan (Barakaldo) Castaños ibaia lehengoratzea.
- Oria ibaiaren uholdeetatik Beasaingo hirigunea babesteko lanak.
- Andoaingo Ziako errekaostaren saneamendua eta uholdeetatik babesteko lanak.



2023ko jarduera nagusiak, 2024ko plangintza

## Plangintzan aurreikusitako jarduerak:

### 2024ko ekitaldiari begira, dagoeneko onartu da honako lan hauek hastea eta gauzatzea

- Euskadiko **ibai-sarean oztopoak eraisteko plana** idazteko lanak, Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legean ezarritakoaren arabera.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren uholde-arriskuaren atariko ebaluazioa egitea, izapidetzea, berrikustea eta eguneratzea. Halaber, Ebroko eta Kantauri Mendebaldeko Demarkazio Hidrografikoetako Uholde Arriskuaren Aurretiazko Ebaluazioak berrikusten eta eguneratzen laguntzeko lan teknikoak egitea aurreikusten da.
- Jabari publiko hidraulikoko **ibilgu publikoen, lakuen, aintziren eta urtegien inbentarioa** eratzeko lanak, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduak ezarritakoaren arabera.
- Uraren Euskal Agentziaren eta AZTI fundazioaren arteko lankidetzahitzarmen berria idaztea, Euskal Autonomia Erkidegoko trantsizioko eta kostaldeko uren jarraipen-programak gauzatzeko, eta 2024-2026 kanpainetarako horien egoera zehazteko.
- Aldi berean, plangintza-ziklo berri honen Hasierako Dokumentuen kontsulta publikoari hasiera emango zaio.
- **Emari ekologikoen erregimenaren ezarpenaren** jarraipen moldagarria.
- Zebra-muskuiluaren presentziarekin, zein espezie inbaditzaile batzuekin lotutako lanak.
- Arriskugarritasunaren eta uholde-arriskuaren mapak berrikusteko eta eguneratzeko prestatzeko lan teknikoak egitea.



2023 MEMORIA

06

**Aurrekontuak.  
Eraitza  
ekonomikoak.**

# Egoera-balantzea

## 2023ko abenduaren 31n

AKTIBOA	31.12.23	31.12.22(*)
<b>AKTIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>197.470.715</b>	<b>214.917.762</b>
<b>Ibilgetu ukiezina</b>	<b>1.889.118</b>	<b>1.750.919</b>
<b>Ibilgetu materiala</b>	<b>195.581.597</b>	<b>213.166.843</b>
Lursailak eta eraikinak	159.431.925	187.413.079
Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu materiala	496.712	804.233
Egite-bidean den ibilgetua eta aurrerakinak	35.652.960	24.949.531
<b>AKTIBO KORRONTEA</b>	<b>37.003.571</b>	<b>39.441.200</b>
<b>Merkataritzako zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk</b>	<b>9.936.778</b>	<b>7.778.160</b>
Bezeroak, salmentengatik eta zerbitzua emateagatik	7.631.027	6.624.790
Langileak	17.350	31.050
Beste zordunak	108	108
Administrazio Publikoekiko beste kreditu batzuk	2.288.293	1.122.212
<b>Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak</b>	<b>27.066.793</b>	<b>31.663.040</b>
Diruzaintza	2.810.081	592.063
Bestelako aktibo likido baliokideak	24.256.712	31.070.977
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>234.474.286</b>	<b>254.358.962</b>

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	31.12.23	31.12.22 (*)
<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>221.820.861</b>	<b>238.383.489</b>
<b>Funts propioak</b>	<b>5.625.893</b>	<b>11.547.508</b>
Gizarte-funtsa	10.877.751	11.859.588
Gerakina	-4.931.540	(312.080)
Ekitaldiko emaitza	-320.318	-
<b>Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak</b>	<b>216.194.968</b>	<b>226.835.981</b>
<b>PASIBO KORRONTEA</b>	<b>12.653.425</b>	<b>15.975.473</b>
<b>Epe laburrerako zorrak</b>	<b>3.946.687</b>	<b>3.621.565</b>
Beste finantza-pasibo batzuk	3.946.687	3.621.565
<b>Merkataritzako hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk</b>	<b>8.706.738</b>	<b>12.353.908</b>
Hornitzaileak, Taldeko enpresak eta enpresa kideak	486.529	598.721
Merkataritzako hartzekodunak	4.684.163	7.318.137
Pertsonala (ordaintzeko dauden lansariak)	1.131	1.117
Administrazio Publikoekiko beste zor batzuk	3.534.915	4.435.933
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>234.474.286</b>	<b>254.358.962</b>





2023 MEMORIA

# ZER BERRI?

# 01

URAk jendurrean jarriko du Aranguren Cadagua ibaiaren uholdeetatik babesteko proiektua

[IKUSI ALBISTEA +](#)



# 05

URAk eta Bilbao BizkaiaUr Partzuergoak obra-hitzarmena sinatu dute Busturialdean 2025era arte

[IKUSI ALBISTEA +](#)



# 02

Laudioko zubi berriaren karga-proba

[IKUSI ALBISTEA +](#)



# 06

Administrazioek itsasadarraren garapenari buruzko protokoloa sinatu dute Bilbon

[IKUSI ALBISTEA +](#)



# 03

URAk Gordexolako Calzadako Zubiete zubiaren egokitzapen hidraulikorako proiektua lizitatu du

[IKUSI ALBISTEA +](#)



# 07

URAREN, Andoaingo Udalaren eta AIU5 Batzarraren arteko hitzarmena Ziako erreka-erretarako

[IKUSI ALBISTEA +](#)



# 04

URAk Zadorrako uholdeetatik babesteko proiektua azaldu du

[IKUSI ALBISTEA +](#)



# 08

URAk uholdeen aurkako lanak hasi ditu Urumean

[IKUSI ALBISTEA +](#)





# 09

**Eusko Jaurlaritzak eta URAk 70M € inbertitu dituzte Urdaibaiko saneamenduan**

[IKUSI ALBISTEA +](#)

# 13

**URAk eta Gordexolako Udalak Zubiete zubiaren egokitzapena eztabaidatu dute**

[IKUSI ALBISTEA +](#)



# 10

**URAk Zuiako eta Urkabustaitzeko hornidura berritzeko proiektua aurkeztu du**

[IKUSI ALBISTEA +](#)



# 14

**URAk Nerbioi ibaiaren sekzioa zabaldu du Laudio babesteko**

[IKUSI ALBISTEA +](#)



# 11

**Sprilurrek eta URAk proiektu bateratuetarako lehen hitzarmena sinatu dute**

[IKUSI ALBISTEA +](#)

# 15

**URAk Gatikako Garai auzoko erreka bat zaharberitu du**

[IKUSI ALBISTEA +](#)



# 12

**URAk jendurrean jarri du Oria Tolosako hirigunetik igarotzean uholdeetatik babesteko proiektua**

[IKUSI ALBISTEA +](#)



# 16


**Lehendakaria: Ingurumenarekiko konpromisoa bete behar bat da gizarte osoarentzat**

[IKUSI ALBISTEA +](#)

# 17

URAk eta Amurriok hitzarmen bat sinatu dute Armuru erreka lehengoratzeko

IKUSI ALBISTEA +



# 21

URAk saneamendua babesteko proiektua onartu du Ziako errekan, Andoainen

IKUSI ALBISTEA +



# 18

URAk eta Soralezek Gabolats zubiaren ordezkapena aztertu dute

IKUSI ALBISTEA +

# 22

Abadiño eta URA elkarlanean Ibaizabaleko uholdeen aurka

IKUSI ALBISTEA +



# 19

URAk Zadorrako uholdeen aurkako defentsa azaldu die tokiko batzarrei

IKUSI ALBISTEA +



# 23

URAk Castaños ibaiaren ertzak zaharberitu ditu Gorostizan, Barakaldon

IKUSI ALBISTEA +



# 20

Tapiak URAREN "Ez dago ura baino indartsuagorik" kanpaina aurkeztu du


IKUSI ALBISTEA +

# 24

URAk, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Andoaingo Udalak hitzarmena sinatu dute Ziako errekan obrak egiteko

IKUSI ALBISTEA +





# 25

**Zadorra babesteko IV. fasearen proiektua onartu da**

IKUSI ALBISTEA +

# 29

**URA Mañuetako alkatearekin eta auzokideekin bildu da, Salado errekan ibaia lehengoratzeko proposamena egiteko**


IKUSI ALBISTEA +



# 26

**Zallak eta URAk hitzarmena sinatu dute Arangurenen Kadagua defendatzeko**

IKUSI ALBISTEA +



# 30

**URAK La Hoya erreka lehengoratu du Guardian, 300 metroko tartean**

IKUSI ALBISTEA +



# 27

**Beasainen Oria ibaiaren gaineko zubi berriaren egitura jarri da**

IKUSI ALBISTEA +

# 31

**Basauriko eta Galdakaoko ur-goraldietatik 5.200 pertsona babestu dira, 36,2 M €-ko inbertsioa egin ondoren**

IKUSI ALBISTEA +



# 28

**Iurretak eta URAk protokolo bat sinatu dute Ibaizabaleko uholdeen aurka**

IKUSI ALBISTEA +



# 32

**Euskadi uraren digitalizazioa lantzen ari da IWA DIGITAL WATER SUMMIT goi-bileran**

IKUSI ALBISTEA +

# 33

URAk Soraluzeko Gabolats zubia ordezkatzeko proiektua aurkeztu du


IKUSI ALBISTEA +



# 37

URAk Zallako Kadaguako uholdeetatik babesteko obrak lizitatu ditu

IKUSI ALBISTEA +



# 34


URAk Olaeta ibaiaren tarte baten eskuineko ertza naturalizatu du Otxandion

IKUSI ALBISTEA +

# 38

Eusko Jaurlaritzak baimena eman dio URARI erkidego arteko arroetako jabari publiko hidraulikoa kudeatzeko

IKUSI ALBISTEA +



# 35

URAk "La Conchita" presako erdiko zatia ireki du Güeñesen

IKUSI ALBISTEA +



# 39

URAk saneamendu lanak lizitatu ditu Mallabian eta Ermuan

IKUSI ALBISTEA +



# 36

URAk Errekaxulo ibaiaren hormigoizko tarte bat lehengoratu du Donostiako Belartza auzoan

IKUSI ALBISTEA +

# 40

URAk La Hoya erreka ibaiaren lehengoratzeko obrak lizitatu ditu Guardian

IKUSI ALBISTEA +



